

ERANSKINA

346 eredua elektronikoki aurkezteko sortzen diren fitxategiek bete beharreko diseinu logikoak

Erregistroen azalpena.

Aitortzaile bakoitzarentzat bi erregistro mota izanen dira, lehen idazgunearen arabera bereizten direnak, irizpide hauen arabera:

1. mota: aitortzailearen erregistroa. Identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

2. mota: hartzailearen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

Aurkezteko ordena erregistro motarena izanen da. 1. motako erregistro bakar bat egonen da, eta 2. motakoen kasuan, aitortenak zenbat hartzaile dituen, hainbat erregistro izanen dira.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretara lerrokaturik eta eskuinetara zuriunez beterik aurkeztuko dira, letra larrietan, karaktere berezirik eta bokal azentudunik gabe.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Hala, "Ñ" letrak ASCII 209 (Hex. D1) balioa izanen du eta "Ç" letrak (c hautsi maiuskula) ASCII 199 (Hex. C7) balioa.

Zenbakizko eremu guztiak eskuinetara lerrokaturik eta ezkerretara zeroz beterik agertuko dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izanen dute edukia, eremuaren azalpenean kontrakoa zehazten ez bada. Ez badute, zenbakizko eremuak zeroz beteko dira, eta alfanumerikoetan eta alfabetikoetan, berriz, zuriuneak utziko dira.

Hartzaile berari ordaindutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak zerrendatu behar badira 346. ereduan, eta hartutakoen gakoak edo motak desberdinak badira, behar diren beste erregistro bete beharko dira, halako moduz ezen erregistro bakoitzak soilik gako eta mota bereko dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen datuak jasoko dituen.

346 EREDUA

A.-1. erregistro mota

Aitortzailearen erregistroa

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '1' zenbakia.
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA. Konstantea: '346'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. Aitorpenaren zerga-ekitaldiari dagozkion lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ. Aitortzailearen IFZ adieraziko da. Eremu hau eskuinetara lerrokaturik egonen da, azken idazgunea kontrol karakterea izanen da eta ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan eta Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauei jarraituz.
18-57	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IZENA EDO SOZIETATE-IZENA. Sozietatearen izena osorik adieraziko da, anagramarik gabe. Eremu honetan inola ere ez da izen komertzialik adieraziko.
58	Alfabetikoa	EUSKARRI MOTA. Gako honekin beteko da: 'T': Transmisio telematikoa.
59-107	Alfanumerikoa	HARREMANETARAKO PERTSONA. Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:
		59-67 TELEFONOA: zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa.
		68-107 IZEN-DEITURAK: lehenbiziko deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horretantxe.
108-120	Zenbakizkoa	AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA. Aitorpenari dagokion frogagiriaren zenbakia jarriko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Adierazi beharreko frogagiri zenbakia zenbaki sekuentzial bat izanen da. Haren lehen hiru digituak 346 kodea izanen dira.
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA. Aitorpen bat, salbuespenez, bigarren aldiz edo ondoren aurkezten bada, eremu hauetako bat bete beharko da nahitaez:
		121 AITORPEN OSAGARRIA: "C" bat adieraziko da, aitorpen hau aurkeztearen helburua baldin bada ekitaldi berean aurkezturiko beste aitorpen batean agertu behar zuten baina agertu ez ziren hartutakoak adieraztea.
		122 ORDEZKO AITORPENA: "S" bat adieraziko da, aitorpen hau aurkeztearen helburua baldin bada ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat ezabatu eta osorik ordeztzea. Ordezko aitorpen bateko aurreko aitorpen bakar bat baizik ez dezake baliogabetu.
123-135	Zenbakizkoa	AURREKO AITORPENAREN ZENBAKIA. "AITORPEN OSAGARRIA" eremuan "C" adierazi bada edo "ORDEZKO AITORPENA" eremuan "S" adierazi bada, osatzen edo ordeztzen den aitorpenaren frogagiri zenbakia adieraziko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Beste edozein kasutan, zeroz beteko da.
136-144	Zenbakizkoa	HARTZAILEAK, GUZTIRA. Zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa. Entitate aitortzaileak 2. motako xehetasun erregistroetan guztira aitortutako hartzaileen kopurua adieraziko da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz konputatuko da.
145-162	Alfanumerikoa	DIRULAGUNTZA, KALTE-ORDAIN EDO LAGUNTZEN GUZTIZKO ZENBATEKOA. 18 idazgunekoa eremu alfanumerikoa. Eremu hau bitan banatzen da:
		145 ZEINUA: Eremu alfabetiko hau beteko da kitatutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen guztizko zenbatekoa lortzeko baturaren emaitza (1. motako erregistro honetako 146. idazgunetik 162.era) 0 (zero) baino txikiagoa denean. Kasu horretan, "N" bat adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.
		146-162 ZENBATEKOA: zenbakizko eremua, 17 idazgunekoa. Adieraziko da hartzaileen erregistroetako "KITATUTAKO EDO ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA" eremuetan (81. idazgunetik 94.era) adierazi diren zenbateko guztien batura, zeinurik eta koma dezimalik gabe. Hartzaileen erregistroetan "N" adierazi bada "ZEINUA" eremuan (2. motako erregistroko 80. idazgunea), zenbateko horiek minus zeinuarekin konputatuko dira, batura honetan islatu behar diren zenbatekoen guztirakoa ateratzerakoan. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da:
		146-160 Dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen zenbatekoaren osoko zatia; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
		161-162 Dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen zenbatekoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
163-500		ZURIUNEAK.

(*) Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

(*) Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

(*) Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

(*) Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldean lerrokaturik eta ezkerrean zeroz beterik

(*) Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokaturik eta eskuinaldean zuriz beterik, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren deskripzioan besterik agintzen ez den.

346 EREDUA

B.–2. erregistro mota

Hartzaileen erregistroa

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA																																																																																																									
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '2'.																																																																																																									
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA. Konstantea: '346'.																																																																																																									
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera adierazi.																																																																																																									
9-17	Alfanumerikoa	AITORTZAILEAREN IFZ. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera adierazi.																																																																																																									
18-26	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN IFZ. Hartzaileak Espainian esleitutako IFZ badu, honela adieraziko da: –Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ, honako hauetan aurreikusitako arauekin bat: uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretua (haren bidez onetsi zen Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra) eta otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretua (haren bidez arautu ziren Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu). –Tributu harremanetan edo tributu gaietan eragina duten harremanetan 14 urtetik beherako pertsonak identifikatzeko, 14 urtetik beherako pertsonaren datuekin batera, identifikazio fiskaleko zenbakia barne, haren legezko ordezkariarenak (aita, ama edo tutorea) ere azaldu beharko dira. –Pertsona juridikoa bada edo errentak eratzkitzeko araubidea duen entitate bat bada (ondasun-erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen jasogabea, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da. Eremu hau eskuinaldean lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira. Espainian esleituriko IFZekin bakarrik beteko da.																																																																																																									
27-35	Alfanumerikoa	LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ. Hartzailea 14 urtetik beherakoa bada, haren legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia (aita, ama edo tutorearena) adieraziko da eremu honetan. Eremu hau eskuinaldean lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira. Beste edozein kasutan zuriuneak utziko dira eremu honen edukian.																																																																																																									
36-75	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATE-IZENA EDO IZENDAPENA. a) Pertsona fisikoa bada, aurrena lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat eta izen osoa emanen dira, hurrenkera horretantxe. Hartzailea adingabea bada, haren deiturak eta izena jasoko dira eremu honetan. b) Pertsona juridikoen eta errentak eratzkitzeko araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen sozietate-izena edo izendapen osoa adieraziko da, anagramarik gabe.																																																																																																									
76-77	Zenbakizkoa	PROBINTZIAREN KODEA. Oro har, hartzailearen helbideko probintziari edo, hala bada, hiri autonomoari dagozkion bi digituak adieraziko dira, zerrenda honen arabera: <table> <tr><td>ARABA</td><td>01</td><td>LEÓN</td><td>24</td></tr> <tr><td>ALBACETE</td><td>02</td><td>LLEIDA</td><td>25</td></tr> <tr><td>ALACANT</td><td>03</td><td>LUGO</td><td>27</td></tr> <tr><td>ALMERÍA</td><td>04</td><td>MADRIL</td><td>28</td></tr> <tr><td>ASTURIAS</td><td>33</td><td>MÁLAGA</td><td>29</td></tr> <tr><td>ÁVILA</td><td>05</td><td>MELILLA</td><td>52</td></tr> <tr><td>BADAJOS</td><td>06</td><td>MURTZIA</td><td>30</td></tr> <tr><td>BARTZELONA</td><td>08</td><td>NAFARROA</td><td>31</td></tr> <tr><td>BURGOS</td><td>09</td><td>OURENSE</td><td>32</td></tr> <tr><td>CÁCERES</td><td>10</td><td>PALENTZIA</td><td>34</td></tr> <tr><td>CÁDIZ</td><td>11</td><td>LAS PALMAS</td><td>35</td></tr> <tr><td>KANTABRIA</td><td>39</td><td>PONTEVEDRA</td><td>36</td></tr> <tr><td>CASTELLÓ</td><td>12</td><td>ERRIOXA</td><td>26</td></tr> <tr><td>CEUTA</td><td>51</td><td>SALAMANCA</td><td>37</td></tr> <tr><td>CIUDAD REAL</td><td>13</td><td>SANTA CRUZ TENERIFEKOA</td><td>38</td></tr> <tr><td>KORDOBA</td><td>14</td><td>SEGOVIA</td><td>40</td></tr> <tr><td>CORUÑA</td><td>15</td><td>SEVILLA</td><td>41</td></tr> <tr><td>CUENCA</td><td>16</td><td>SORIA</td><td>42</td></tr> <tr><td>GIRONA</td><td>17</td><td>TARRAGONA</td><td>43</td></tr> <tr><td>GRANADA</td><td>18</td><td>TERUEL</td><td>44</td></tr> <tr><td>GUADALAJARA</td><td>19</td><td>TOLEDO</td><td>45</td></tr> <tr><td>GIPUZKOA</td><td>20</td><td>VALENTZIA</td><td>46</td></tr> <tr><td>HUELVA</td><td>21</td><td>VALLADOLID</td><td>47</td></tr> <tr><td>HUESCA</td><td>22</td><td>BIZKAIA</td><td>48</td></tr> <tr><td>BALEAR UHARTEAK</td><td>07</td><td>ZAMORA</td><td>49</td></tr> <tr><td>JAÉN</td><td>23</td><td>ZARAGOZA</td><td>50</td></tr> </table>		ARABA	01	LEÓN	24	ALBACETE	02	LLEIDA	25	ALACANT	03	LUGO	27	ALMERÍA	04	MADRIL	28	ASTURIAS	33	MÁLAGA	29	ÁVILA	05	MELILLA	52	BADAJOS	06	MURTZIA	30	BARTZELONA	08	NAFARROA	31	BURGOS	09	OURENSE	32	CÁCERES	10	PALENTZIA	34	CÁDIZ	11	LAS PALMAS	35	KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36	CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26	CEUTA	51	SALAMANCA	37	CIUDAD REAL	13	SANTA CRUZ TENERIFEKOA	38	KORDOBA	14	SEGOVIA	40	CORUÑA	15	SEVILLA	41	CUENCA	16	SORIA	42	GIRONA	17	TARRAGONA	43	GRANADA	18	TERUEL	44	GUADALAJARA	19	TOLEDO	45	GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46	HUELVA	21	VALLADOLID	47	HUESCA	22	BIZKAIA	48	BALEAR UHARTEAK	07	ZAMORA	49	JAÉN	23	ZARAGOZA	50
ARABA	01	LEÓN	24																																																																																																								
ALBACETE	02	LLEIDA	25																																																																																																								
ALACANT	03	LUGO	27																																																																																																								
ALMERÍA	04	MADRIL	28																																																																																																								
ASTURIAS	33	MÁLAGA	29																																																																																																								
ÁVILA	05	MELILLA	52																																																																																																								
BADAJOS	06	MURTZIA	30																																																																																																								
BARTZELONA	08	NAFARROA	31																																																																																																								
BURGOS	09	OURENSE	32																																																																																																								
CÁCERES	10	PALENTZIA	34																																																																																																								
CÁDIZ	11	LAS PALMAS	35																																																																																																								
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36																																																																																																								
CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26																																																																																																								
CEUTA	51	SALAMANCA	37																																																																																																								
CIUDAD REAL	13	SANTA CRUZ TENERIFEKOA	38																																																																																																								
KORDOBA	14	SEGOVIA	40																																																																																																								
CORUÑA	15	SEVILLA	41																																																																																																								
CUENCA	16	SORIA	42																																																																																																								
GIRONA	17	TARRAGONA	43																																																																																																								
GRANADA	18	TERUEL	44																																																																																																								
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45																																																																																																								
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46																																																																																																								
HUELVA	21	VALLADOLID	47																																																																																																								
HUESCA	22	BIZKAIA	48																																																																																																								
BALEAR UHARTEAK	07	ZAMORA	49																																																																																																								
JAÉN	23	ZARAGOZA	50																																																																																																								

IDAZGUNEAK	IZAERA	EREMUEN DESKIPZIOA
78	Alfabetikoa	HARTUTAKOAREN GAKOA. Kasuan kasuko dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzari dagokio gako alfabetikoa adieraziko da, zerrenda honen arabera:
		A Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik salbuetsita dauden dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak, aitorpenari dagokion ekitaldian zerga hori arautzen duen indarreko araudiaren arabera, hala nola Europar Batasunaren nekazaritza politikako dirulaguntzak eta ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren zortzigarren xedapen gehigarrian zehazten diren laguntza publikoak. Gako hau ez da adieraziko C edo D gakoak dagozkienean.
		B Gako hau adieraziko da ez direnean A, C edo D letretan adierazitako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak.
		C Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak kofinantzatutako Nafarroako landa garapenerako programako laguntzak, zerga-salbuespena izaten ahal dutenak Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7.z) artikulua aplikatzearen ondorioz.
		D Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtzak (NBEUF) osorik finantzatutako laguntzak, zerga-salbuespena izaten ahal dutenak Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7.z) artikulua aplikatzearen ondorioz.
79	Zenbakizkoa	HARTUTAKOAREN MOTA. Dagokion kodea adieraziko da, zerrenda honen arabera:
		1 Dirulaguntza arruntak.
		2 Kapitaleko dirulaguntzak.
		3 Hartzailearen nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren aktibo zirkulatzailearen ondare-elementuetan izandako kalteengatik hartutako kalte-ordain edo laguntzak.
		4 Hartzailearen nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren ibilgetuaren ondare-elementuetan izandako kalteengatik hartutako kalte-ordain edo laguntzak.
		5 Jarduera erabat edo partez utzi edo abandonatzeagatik hartutako kalte-ordain edo laguntzak.
		6 Bestelako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak, gainerako kodeetan zehazten ez direnak.
		7 Nekazari gazteen lehen instalaziorako laguntza publikoak, Espainiako Landa Garapenerako Esparru Nazionalean ezarriak.
80-94	Alfanumerikoa	KITATUTAKO EDO ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA. Eremu hau bitan banatzen da:
		80 ZEINUA: Eremu alfabetikoa. Beteko da 346 erduan sartzen direnean dagokion ekitaldian hartzaileek itzuli dituzten zenbatekoen datuak, itzuli dituztelako aurreko ekitaldietan bidegabe edo zegokionetik gora hartutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak. Kasu horretan, "N" bat adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.
		81-94 ZENBATEKOA: zenbakizko eremua, 14 idazguneak. Adieraziko da hartzaile bakoitzari benetan ordaindutako edo kitatutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzaren urteko zenbateko osoa, zeinurik eta koma dezimalik gabe. Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Eremu hau bitan banatzen da:
		81-92 Dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzaren urteko zenbateko osoaren osoko zatia; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
		93-94 Dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzaren urteko zenbateko osoaren zati hamartarra; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
95-98	Zenbakizkoa	SORTZAPENAREN EKITALDIA. Jarraian azaltzen diren kasuetan soilik beteko da eremu hau: a) Aitorpenean zerrendatutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzetako bat atzerapen gisa ordaindutako kopuru bat bada eta haren sortzapena edo galdagarritasuna aitorpenaren xede den ekitaldiaren aurreko ekitaldiei badagokie. Halakoetan, behar diren gainerako datuak betetzeaz gain, sortzapenaren ekitaldiaren lau zifrak adieraziko dira eremu honetan. Hartzaile berari ordaindutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen sortzapena ekitaldi desberdinetakoa bada, haien zenbatekoak erregistro desberdinetan banatu beharko dira, erregistro bakoitzak soilik ekitaldi bereko sortzapenei dagozkien dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak jaso ditzan. b) Halaber, eremu hau beteko da 346 erduan sartzen direnean dagokion ekitaldian hartzaileek itzuli dituzten zenbatekoen datuak, itzuli dituztelako aurreko ekitaldietan bidegabe edo zegokionetik gora hartutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzak. Kasu horietan, itzulketa bakoitza zerrendatuko da bidegabe edo zegokionetik gora ordaindutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntza, bere garaian, 346 erduan sartu zen gako eta mota berarekin. "Zeinua" eremuan (80. idazgunea) "N" adierazi behar da; "Zenbatekoa" eremuan (81-94 idazguneak), dagokion zenbatekoa; eta "Sortzapenaren ekitaldia" eremuan, itzuli diren hartutakoak zer urtetan sortu ziren jatorrian. Pertsona edo entitate beretik etorritako itzulketak baldin badagozkie jatorrian ekitaldi batean baino gehiagotan sortutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzei, itzulketen zenbatekoak erregistro desberdinetan banatu beharko dira, erregistro bakoitzak soilik ekitaldi bereko dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzen itzulketak jaso ditzan.
99-155	Alfanumerikoa	KONTZEPTUA. Kitatu edo ordaindutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzaren izena jarriko da, adibidez: Mahastia behin betiko uztea.
156	Zenbakizkoa	ESKU-HARTZE MOTAREN GAKOA. Adieraziko aitorzaileak zer izaerarekin esku hartzen duen, aitorpenean sartutako dirulaguntza, kalte-ordain edo laguntzei dagokienez. Dagokion kodea adieraziko da, zerrenda honen arabera:
		1 Norbere izenean.
		2 Hirugarren baten izenean.
157-500		ZURIUNEAK.

(*) Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

(*) Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

(*) Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

(*) Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldean lerrokaturik eta ezkerrean zeroz beterik

(*) Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrokaturik eta eskuinaldean zuriz beterik, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren deskripzioan besterik agintzen ez den.